
ETENALDI AKADEMIKO DEIALDIEN AURREAN JARRAITZEKO PROZEDURA

UPV/EHU-ko ikasleen arautegiko (EHAA-2012-07-31) 2.7 artikuluan dio ikasleen eskubideak honako hauek direla: *Beren eskubideak defendatzea, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egitea. Etenaldi akademikoa erabakitzeak ez ditu ondorioak izango ikasleak eskoletara joateari dagokionez; edonola ere, erabaki horrek ez du, inola ere, finkatutako ebaluazio-egutegia aldatuko. Beraz, ezin izango dira ebaluazio-probak finkatu, hitzartutako datan aurreikusi ez badira.*

Arautegiko 27. artikuluan zera dio: *Bereziki, ataleko, ikastegiko edo campuseko Ikasleen Kontseiluetako edo UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideen bi herenek eman beharko dute botoa, 2.7 artikuluan aurreikusitako etenaldi akademikoa egitea erabakitze. Gainera, 4. puntuaren ere honako hau jasotzen da: Erabakiak ikasleen ordezkaritza-organoei erreserbatutako iragarki-oholetan jarriko direla, eta dagokion webgunean.*

28. artikuluan esaten den bezala: *Etenaldi akademikoari dagokionez, Arautegi honen 2.7 artikuluan zehaztutakoa aplikatuko da, baldin eta artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen eta prozedura guztiak jarraitzen badira:*

- 1.- *Etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, baldin eta eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.*
- 2.- *Etenaldi akademikorako deialdia egiteko beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako gehiengo kualifikatua edukitzea. Etenaldi akademikoak UPV/EHU osoari eragiten badio, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren aldeko erabakia izateaz gainera, beharrezkoa izango da hiru campusetako ikasleen kontseiluek ere alde egotea.*
- 3.- *Erabakia idatziz jakinaraziko zaio organo eskudunari (Dekanotza, Ikastegiko Zuzendaritza, Errektoreordetza).*
- 4.- *Eskaera Ikastegian kokatutako Erregistro Orokorrean sartu, eta, gehienez, hiru egun balioduneko epean, organo eskudunak eskaera egin duen kontseiluarekin biltzeko deia egingo du, eskakizunak betetzen direla egiaztatze aldera. Etenaldia egiaztatzeko bilera hori egin gabe eginez gero, ez da, inola ere, Arautegi honen 27. artikulua aplikatuko.*
- 5.- *Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak jarriko ditu, etenaldi akademikoaren deialdiarekin bat ez datozen ikasleen eskubideak bermatze aldera.*



Hori dela eta, honako ondorio hauetara ailegatzen da:

- a) Etenaldi akademikoaren deialdia UPV/EHU-ko ataleko, ikastegiko edo campuseko Ikasleen Kontseiluak aprobatuta egon behar izango dela.
- b) Deialdia dagokion Ikasleen Kontseiluak aprobatuta badago, ezin izango da falta kontsideratu (ez bidekoa, ez bidegabekoa) etenaldi akademikoan parte hartzen duten ikasleei.
- c) Etenaldi akademikoak 28. artikuluan agertzen diren irizpideak beteko ez balira, b puntua ez litzateke aplikatuko.
- d) Etenaldi akademikoa egiten bada ebaluaketa aurreikusita dagoen egun batean, ebaluaketa hori mantendu beharko da eta ez da deialdi berri bat ezarriko.
- e) Etenaldi akademikoan parte hartzen ez duen ikasleriak eskola jasotzeko eskubidea du. Baina araudiak ez du erregulatzen ea materia aurrera daitekeen ala ez.

Beraz, UPV/EHU-ko Ikasleen Arautegiak (EHAA-2012-07-31) etenaldi akademikoa ikasleen eskubidea dela aintzatezten du eta bere 2.7., 27. eta 28. artikuluetan hala arautzen du. Geldialdi akademikoa sustatu edo geldialdi akademikoan parte hartu nahi duten ikasleek arautegi honetara jo beharko dute. UPV/EHU-ko ikasleriak etenaldi akademikoa egiteko, UPV/EHU-ko ataleko, ikastegiko edo campuseko Ikasleen Kontseiluaren deialdia egotea ezinbesteko balditza izango da. Handik aurrera, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean hurrengo pausuak jarraituko dira:

- 1.- Gelakideei jakinarazi eta gero, klaseko ordezkariak eskola ordutegiaz kanpo (klaseen arteko atsedenetan, eguneko eskola-orduen amaieran, etabar) bozketa antolatuko du. Botoak jasoko ditu eta bere gelakideen aurrean zenbatzeari ekingo dio.
- 2.- Gero, *Etenaldi akademikoan parte hartzearen komunikazioa* dokumentua bete beharko du eta posta elektronikoaren bidez bai Antolakuntza Akademikoko Zuzendariordeari bai lauhilabete horretan talde horretan-*eskola ematen ari diren irakasle guztiei bidali beharko die.*

Arautegiaren 28. artikulua 5. puntua kontuan hartuz (*organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak jarriko ditu, etenaldi akademikoaren deialdiarekin bat ez datozen ikasleen eskubideak bermatze aldera*), nahiz eta Arautegiak geldialdiarekin bat ez etorri ikasleentzat klasera joatearen eskubidea bermatuko da eta ez da argi geratzen materia aurrera daitekeen ala ez. Eta ulertuz eskubide kolektiboak (etenaldi akademikoa) eta gizabanakoaren eskubideak

(eskola jasotzea) bat etorri behar direla, Eskola honen gomendioa etenaldi akademiko ofizialetan irakasgaiak ez aurreratzea da.

Hala ere, etenaldi akademikoarekin ez datozen ikasleentzat irakasleak behar den materiala aurreratuko du, klasea joan nahi duten ikasleen eskubideak bermatzeko. Hala ere, materiala ondo prestatzeko nahiko denbora izatea irakaslearen eskubidea da. Horregatik, klaseko ordezkariak irakasleei nahiko aurrerapenarekin jakinaraziko dizkie bere taldeak etenaldi akademikoan parte hartuko duela eta, hala balitz, ikasle batzuk klasera joango direla. Hala abisatuko da gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin.